

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y
MEDIO AMBIENTE

EUSKADIKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN LURRALDEAREN PLAN SEKTORIALA (EEBB LPS)

AURRERAPEN DOKUMENTUA

II. Dokumentua: Xedapenak

Urria 2021



AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| 1. XEDAPEN OROKORRAK | 1 |
| 2. EDUKIAK, ONDORIOAK ETA GARRANTZIA | 3 |
| 3. IRAUPENA, BERRIKUSPENA ETA ALDAKETA | 5 |
| 4. ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALAZIOAK BURUTZEA ETA JARRAITZEA..... | 6 |
| 5. HIRIGINTZA ORDENAZIO BERRIA | 8 |
| 6. XEDAPEN GEHIGARRIAK..... | 12 |



1. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA- Oinarri arautzailea

Lurralde Plan sektorial hau Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko *maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 16. artikuluan eta hurrengoetan eta lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 17. artikuluan* ezarritakoaren babesean egin da.

Bestalde, LPS honen beharra *Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean* dago araututa. Lege horren laugarren xedapen gehigarrian ezartzen denez, Eusko Jaurlaritzak Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala egiten hasi beharko du.

Halaber, Lurralde Plan Sektorial hau *uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez* Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspenean azaldutako energia-azpiegituren arloko irizpide eta zehaztapenetan kokatzen da, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan egindako energia-eredu jasangarriaren plangintzan bertan ere.

2. ARTIKULUA – Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren xedea eta izaera

- Lurralde Plan Sektorialaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan energia berriztagarriak ustiatzeko kokalekurik egokienak identifikatzea eta hautatzea, Euskadiko potentzial berriztagarria ahalik eta gehien aprobetxatzeko beharrezkoak diren energia berriztagarriko instalazioen kokapenaren aurreikuspena jasotze aldera. Planaren xedea da, halaber, natura-ondarea zaintzearekin bateragarria delarik, planifikazio hori lurralde antolamendurako politika oso baten barruan sartzea, inplikaturik dauden sektoreen interesak koordinatuz.
- Lurralde Plan Sektoriala lurralde antolamenduko tresna bat da. Horrela, Planaren bidez nahi da energia berriztagarriak garatzeko behar diren instalazioak lurraldean egoki banatzea; nahi da, halaber, sektoreetan (energia berriztagarria, ingurumenekoa, lurraldea, eta hirigintza) administrazio publikoen esku-hartzeko eskubideen koordinazioa bermatzea.
- Zentzu horretan, energia berriztagarrien instalazioek eta Lurralde Plan Sektorial honen objektua eta eremua osatzen duten jarduerak bi ezaugarri nagusi dituzte: lurraldetasuna eta udalerriz gaindiko ikuspegia.

3. ARTIKULUA - Printzipio orokorrak

Lurralde Plan Sektorial honen garapenak helburu orokor hauek ditu:

- Euskadiren independentzia energetikoa sustatzea eta bultzatzea, kanpoko lurraldeekiko duen mendekotasun energetikoa murriztuz.
- Denboran agorrezinak diren energia autoktonoen erabilera sustatzea.
- Energia-produkzioa dibertsifikatzea Euskadin.
- Industria-garapena bultzatzea eta erraztea, energia-kostua murriztuz.
- Landa-guneetan energia baliatzeko aukera sustatzea, baliabide berriztagarria eta, hortaz, baliabidearen ustiapen potentziala eremu horiei baitago gehienbat lotuta, eta hori populazioa landa-gunean finkatzeko lagungarria izan daitekeelako.
- Lurraldea ardazten eta ekonomia deszentralizatzen laguntzea.
- Euskadiko energia-sektorearen karbono-aztarna murriztea.

4. ARTIKULUA – Aplikazio-eremua

Lurralde Plan Sektorial honen aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidego osora hedatzen da, Eusko Jaurlaritzak arauak arautzeko eta garatzeko ahalmena duen eremuaren barruan.

5. ARTIKULUA – Aplikazio-eremu materiala

- Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorial honen eremu materiala energia berriztagarriko instalazio guztiek osatzen dute.
- Lurralde Plan Sektorial honen eremutik kanpo geratzen dira Estatuaren eskumeneko Itsas Lehorreko Jabari Publikoan ezarritako energia berriztagarriko instalazioak.



6. ARTIKULUA - Definizioak

Ondorio horietarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

- Energia berriztagarriko instalazioa: une bakoitzean indarrean dagoen legerian ezarritako estandarrak betetzen dituen edozein baliabide berriztagarri hornitzen den instalazioa.
- Eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioa: energia banatzeko eta/edo saltzeko soilik diren energia berriztagarriko instalazio guztiak.
- Bero- eta hotz-sarea energia berriztagarriekin (District heating and cooling): ur bero sanitarioa (ACS), berokuntza eta/edo hozte-sistema hainbat kontsumitzailearentzat hornitzeko sistema, energia berriztagarri zentralizatuko instalazio termiko batetik.
- Autokontsumoa: kontsumitzeko instalazioetatik hurbil dauden eta horiekin lotuta dauden energia berriztagarriko instalazioetatik datorren energia elektrikoa edo termikoa kontsumitzen duen kontsumitzaile batek edo gehiagok energia kontsumitzea.

7. ARTIKULUA – Lurralde Plan Sektorialaren xedapenen xedea

Xedapen hauekin nahi da aplikazio orokorrerako arau zehatzak ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoan energia berriztagarriak ezartzeko prozedura antolatzeko eta bideratzeko asmoz.



2. EDUKIAK, ONDORIOAK ETA GARRANTZIA

8. ARTIKULUA – Edukia eta garrantzia normatiboa

- Lurralde Plan Sektorial hau dokumentu hauek osatzen dute:
 - Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (gaur egun, Aurrerapen Dokumentua)
 - ~ I. Dokumentua: Memoria
 - ~ II. Dokumentua: Xedapenak
 - ~ III. Dokumentua: Planoak
 - * A taldea: Ordenazio planoak
 - * B taldea: Informazio planoak
 - ~ IV. Dokumentua: Eranskinak
 - * I. Eranskina: Energia berriztagarriko proiektuak diseinatzeko, gauzatzeko eta ustiatzeko jarraibideak
 - * II. Eranskina: Jasangarritasun Energetikoari buruzko Azterketa
 - Ingurumen Azterlan Estrategikoa (gaur egun, Hasierako Dokumentu Estrategikoa)
 - ~ I. Dokumentua: Memoria
 - ~ II. Dokumentua: Planoak
 - * A taldea: Ordenazio planoak
 - * B taldea: Informazio planoak
 - ~ III. Dokumentua: Eranskinak
 - * I. Eranskina: Energia-instalazio berriztagarrietako proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Azterketen eta Ingurumen Dokumentuen gutxieneko edukiak
 - * II. Eranskina: 2011/2012 Dekretuaren V. Eranskinaren Formularioa
 - * III. Eranskina: Jasangarritasun Energetikoari buruzko Azterketa
- Plan honen edukia osatzen duten dokumentuen multzoak osatzen badu ere, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren (gaur egun, Aurrerapen Dokumentua) II. Dokumentua – Xedapenak eta III. Dokumentua – Planoak (A taldea: Ordenazio Planoak) dira, zehatzago esanda, arau emate izaera hori duten dokumentuak. Eta dokumentu horiek dira, beraz, zuzenean lotesten dutenak.
- Gainerako plano, dokumentu, memoria eta eranskinak dira, batik bat, adierazgarritzat hartzeko, erreferentziatzen edukitzeko, azalpenak izateko eta justifikatzeko. Beraz, dokumentu horien eta 2 atalean aipatutakoen artean kontraesanik egonez gero, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren (gaur egun, Aurrerapen Dokumentua) II. Dokumentuak – Xedapenak eta III. Dokumentuak – Planoak III diotenak balioko du.

9. ARTIKULUA- Ondorioak, hirigintza plangintzako tresnengan. Hirigintza planak egokitzea

- Lurzoruari buruzko Legean araututako hirigintza planak moldatu egin beharko dira energia berriztagarrien Lurralde Plan Sektorial honetan ezarritakora; horretarako, urtebeteko epea egongo da. Horrela agintzen du *maiatzaren 31ko Euskadiko Lurralde Antolamendurako 4/1990 Legeak* (9. artikulua).
- Edozein modutan, Lurralde Plan Sektorialeko xedapenak, ordenazio planoetakoak barne, argitaratzen diren momentutik bertatik udalerrietako planen eta Arauen xedapenen gaintik egongo dira, baita Plan honetako xedapenetara egokitu ez badira ere.

10. ARTIKULUA- Xedapenen garrantzia

Lurralde Plan Sektoriala behar adinako tresna egokia da, lurralde eta hirigintza aldetik begiratuta, energia berriztagarriko instalazioak ezartzeko eta horiek gauzatzeko lurraldean egin behar diren



ekintzak justifikatzeko. Horrela, artikulua hauetan eta antolamendu planoetan ezartzen diren zehaztapenak lotesleak dira eta udal-plangintzaren gainetik daude.

11. ARTIKULUA- Energia Berriztagarrien LPSaren eta lurralde-plangintza partzialaren koordinazioa

Uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera, desadostasunak daudenean, Lurralde Plan Sektorialaren irizpidea kontuan hartuko da Euskadi osoan edo eremu funtzionaletik gorako eremuetan aplikatu beharreko gaiak direnean, Energia Berriztagarrien LPS honen kasuan bezala.

Hala ere, artikulua horrek berak ezartzen duen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea (COTPV) da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio guztien organo aholku-emaila gorena eta koordinazio horizontalerako organo gorena, lurralde-antolamenduaren, itsasertzaren eta hirigintzaren jardun-arloan, eta lurralde-plangintza interpretatzeko eta, hala badagokio, eztabaidak konpontzeko lana dagokio.

12. ARTIKULUA- Betearaztea eta derrigortzea

- Lurralde Plan sektorial hau betearazlea izango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian behin betiko onesteko dekretua argitaratu eta berehala.
- Lurralde Plan Sektorial honek kasu bakoitzean eskumena duen administrazioa derrigortuko du garatzera bertan aurreikusitako ekintzak eta hirigintza ordenazioko tresnak; derrigortuko ditu garatzera, halaber, aukeratutako kokalekuei eragiten dieten sektore tresnak ez ezik, energia berriztagarrien instalazioak ezartzera doazen partikularrak ere bai.

13. ARTIKULUA- Desjabetzeko legitimatzea

- Instalazioak herri erabilpenerako direla onartzeko, beharrezkoa izango da enpresa interesdunak hala eskatzea. Eskaeran eskatzaileak banan-banan aipatuko ditu bere iritziz desjabetu behar diren ondasunak eta eskubideak.

Ondasunak eta eskubideak herri erabilerarako direla aitortzeak berekin dakar beti adierazpenak ukitzen dituen ondasunak hartzea eta eskubideak eskuratzea, eta baita presazko okupazioa ere (*Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legea*, 52. artikulua). Ondasunak eta eskubideak herri erabilerarako aitortzeak berekin dakar, halaber, instalazio elektrikoa lursailetan ezartzeko edo lursailetatik pasatzeko baimena. Lursail horiek Estatuarenak edo Autonomia Erkidegoarenak izan daitezke (jabetza, erabilera edo zerbitzu publikoak edo ondare ondasunak) edota Lurralde Historikoarenak edo udalerriarenak ere bai (erabilera publiko, bereak edo komunalak, edota obra, zerbitzu eta zor publiko eremuetakoak).

- Edonola ere, azpiegiturak eraiki, erabili eta babesteko, edota pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, behar den jabetza kentzerakoan edo mugatzerakoan, *Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen IX. tituluaren eta Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan (uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretua)* xedatutakoa beteko da, edo bestela, Estatu legeria edo hori ordezkatzeko eta/edo garatzeko duen Autonomia Erkidegoko legeria.



3. IRAUPENA, BERRIKUSPENA ETA ALDAKETA

15. ARTIKULUA- Iraupena

- Lurralde Plan Sektorial honen indarraldia mugagabea izango da, hura ordeztuko duen plangintza berririk ez dagoen bitartean, hargatik eragotzi gabe haren balizko aldaketak edo berrikuspenak, programatuak izan ala ez.
- Lurralde Plan Sektorial honetako zehaztapenen bat deuseztatu, ezeztatu edo aldatzen bada, horrek ez du eraginik izango gainerako zehaztapenen baliozkotasunean, salbu eta zehaztapen horietakoren bat ezin bada aplikatu haien arteko erlazioa edo mendekotasuna dela-eta.

16. ARTIKULUA- Berrikuspena

- Lurralde Plan Sektorial hau orokorrean berraztertzeko edo funtsean aldatzeko, berrikusi egin beharko da.
- Ondorio horietarako, aldaketa funtsezkotzat hartuko da hasieran hautatutako eta onartutako antolamendu-ereduaren aldaketa oro, baldin eta aldaketa hori desberdina dela adierazten badu, eta berrizat jo badaiteke, eta ez soilik alderdi puntualei eta osagarriei dagokienez, *Planak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera.*
- Aurreko puntuan adierazitakoa alde batera utzi gabe, berrikusi egin beharko da, baldin eta beharrezkotzat eta komenigarritzat jotzen bada Lurralde Plan Sektorial hau orokorrean aldatzea, honako inguruabar hauek direla eta:
 - Energia-ereduari buruzko irizpide berriak hartzea.
 - Eredu horretan eragin nabarmena duten bat-bateko baldintza berriak agertzea.
 - Garapen teknologikoak energia berriztagarrien aprobetxamendu errentagarriak modu eraginkorragoan egiteko aukera ematen duenean.
- Lurralde Plan Sektorial honen funtsezko aldaketek, dekretu hau egiteko, *martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan* aurreikusitako izapidetze bera izango dute.
- Indarraldian sartzen diren aldaketak alde batera utzita, zortzi (8) urtean behin aztertuko da Plana berrikustea komeni den ala ez. Plana beste edozein unetan, aurretik eta ondoren, berrikusi daiteke, onartzen den maila goragoko xedapenak hala eskatzen badu.
- Aurreko puntuan esandakoa ahaztu gabe, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak lau urtean behin informatuko dio Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeari Lurralde Plan Sektorial hau errealitatera zenbat egokitzen den, eta behar izanez gero, berrikustea ere aholkatuko dio.

17. ARTIKULUA- Funtsezkoa ez den aldaketa

- **Funtsezkoa ez den aldaketa bat**, *martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 18. artikuluekin* bat datorrena, Lurralde Plan Sektorialaren aldaketa puntuala da, berrikuspen orokorrik edo funtsezko aldaketarik eragiten ez duena, hau da, aldaketa horrek alderdi zehatz eta osagarriei eragiten dienean.
- Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen saila izango da Lurralde Plan Sektorialean funtsezkoa ez den aldaketa-prozedura hasteko organo eskuduna. Izapideak hasi aurretik, organo berak berariaz eta arrazoituta erabaki beharko du aldaketa ez dela funtsezkoa.
- Funtsezkoak ez diren aldaketak Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 24. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez egingo dira.

18. ARTIKULUA- Eteeta

Lurralde Plan Sektorialaren indarraldia eten ahal izango da, *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 3. artikuluan* xedatutakoaren arabera.



4. ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INSTALAZIOAK BURUTZEA ETA JARRAITZEA

19. ARTIKULUA- Instalazio energetiko berriztagarriak gauzatzea. Instalazioak baimentzea

- Energia berriztagarri mota bakoitzerako "bazterketa-eremu" espezifikoetatik kanpo, non berariaz debekatuta dagoen energia berriztagarriko instalazioak egitea, 23. artikuluan adierazitako gainerako eremuetan, aurretik instalazioen administrazio baimena lortu beharko da eta exekuzioaren proiektu teknikoa onartu, horrelako instalazioetarako indarrean dagoen legerian aurreikusitako baldintzetan.
- Instalazioak ezartzeko administrazio baimenaren helburua izango da horrelako energia berriztagarrien instalazioak funtzionala izateko eskatzen dituen zerbitzuak eta instalazioak ezartzea, horien segurtasun baldintzak eta baldintza teknikoak bermatzea eta inguruko hainbat balio zaintzeko neurriak zehaztea (natura, hirigintza, paisaia, kultura, nekazaritza, abeltzaintza eta basoen inguruko balioak).
- Energia berriztagarriko instalazioen administrazio-baimena energiaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak izapidetu eta emango du, *Sektore Elektriakoari buruzko Legean* eta hura ordeztzen eta/edo garatzen duen Estatuko edo autonomia-erkidegoko gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

Hala ere, *Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013* Legearen 3.13.d) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Estatuko Administrazio Orokorraren eskumenekoak izango dira 50MW elektrikotik gorako potentzia elektriko instalatua duten energia berriztagarriko instalazioak.

- Baimenak emango dira ahaztu gabe, betiere, behar izan litezkeen beste emakida, lizentzia edo baimenak, aplikagarriak diren beste xedapenen arabera.
- Energia berriztagarrien instalazioen baimena eskatzen duenak egiaztatu beharko ditu proposatutako instalazioen inguruko baldintza teknikoak eta segurtasun baldintzak, ingurumena babesteko baldintzak ondo betetzea eta duen ahalmena (legala, teknikoa eta ekonomikoa) eskatutako proiektua burutzeko.
- Baldin eta zona berean eta arau bidez ezarritako epean, energia berriztagarrien instalazioak ezartzeko bi eskaera edo gehiago badaude, energiaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak proiekturik egokiena baimenduko du, horretarako, irizpide hauek erabiliko ditu: inizatiba eduki izana, behar adinako gaitasun teknikoa eta finantzariora edukitzea, teknikoki bermatzea ekoizpen energetikoaren eta ingurumen-eraginaren arteko erlazio egokia izatea, besteak baino hobeto egokitzea energia plangintzara, eta Autonomia Erkidegoarentzat abantaila sozioekonomikorik handienak ekartzea.
- Energiaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak arrazoituta ez du baimenik emango, baldin eta proiektuak ez badu jasotzen ingurumen inpaktuari buruzko aldeko ebaluazioa, hori emateko organo eskudunarengandik, legeria edo Lurralde Plan Sektorial honetako funtsezko xedapenak errespetatzen ez baditu, edo konponezinezko hutsune teknikoak baditu.

20. ARTIKULUA – Ingurumen inpaktuari buruzko ebaluazioa

- Aurreko artikuluan esandakoa ahaztu gabe, energia berriztagarrien proiektu bakoitzari dagokion inpaktuari buruzko ebaluazio sinplifikatu edo ohikoa egingo zaio, indarrean dagoen legediaren arabera aplikagarria dena.
- Proiektu bakoitzak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudiaren arabera jaso beharreko edukia alde batera utzi gabe, dagokion ingurumen-inpaktuaren azterketan edo ingurumen-dokumentuan kontuan hartu beharko dira Lurralde Plan Sektorial honetako ingurumen-azterketa estrategikoko (gaur egun, Hasierako Dokumentu Estrategikoa) "*Ingurumen-inpaktuaren azterlanen edukia eta Ingurumen-dokumentuak energia-instalazio berriztagarrien proiektuetan*" I. Eranskinean adierazitako edukiak.



21. ARTIKULUA- Energia berriztagarriko instalazioak diseinatu, eraiki eta ustiatzeko neurriak eta jarraibideak

Aurreko artikuluetan esandakoa ahaztu gabe, Energia berriztagarriko instalazioak diseinatu, eraiki eta ustiatzeko, energia berriztagarrien instalazioak "*Gauzatzeko eta ustiatzeko jarraibideak*" izeneko dokumentuan adierazitako irizpideak, neurriak eta orientabideak hartuko dira erreferentziazat. Dokumentu hori Energia Berriztagarrien LPSaren I. Eranskinean dago jasota, eta, era berean, aurreko artikuluan aipatutako instalazio energetiko berriztagarrien proiektuen Ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanen edo Ingurumen-dokumentuen edukia jasotzen du.

22. ARTIKULUA - Jarraipenaren urteko txostena

Euskal Autonomia Erkidegoan eskala handiko ekoizpeneko Energia Berriztagarriko instalazioak martxan jartzen dituzten enpresa sustatzaileek, urtero txosten bat aurkeztu beharko diote Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailari. Txostenean hau azalduko da gutxienez:

- Energia elektrikoaren edo termikoaren eskariari buruzko ebaluazioa.
- Energia elektrikoaren edo termikoaren ekoizpena.
- Helburuak betetzearen justifikazioa.
- Funtzionamenduaren ebaluazioa.
- Ingurumen jarraipenari buruzko txostenaren konklusioak.



5. HIRIGINTZA ORDENAZIO BERRIA

23. ARTIKULUA- Azpiegitura mota eta lurralde-zonakatzea

- Lurralde Antolamendurako Gidallerroetako ingurune fisikoari buruzko ildoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioak zerbitzu ez linealetako (B mota) zerbitzuetako instalazio teknikoetan sartzen dira.
- Euskadiko lurraldean eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioak ezartzeko, honako eremu hauek hartuko dira kontuan:

- Bazterketa-eremuak
- Gune optimo garbiak
- Lurraldearen gainerakoa

- Zonakatze hori eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioei aplikatu dakieke, baldin eta inpaktu handiagoa badute lurraldean, beren eraikuntza-ezaugarrien ondorioz (tamaina, diseinua, kokapen-lehentasunak, etab.). Zonakatzea instalazio hauei aplikatuko litzaieke:

| | |
|------------------------|--|
| Eolikoa | Energia husteko eta saltzeko sarera konexioa duten aerosorgailu batek edo gehiagok osatutako eskala handiko produkzioko haize-parkeei aplikatuko litzaieke. |
| Fotovoltaikoa | Eskala handiko produkzioko lur-gaineko eguzki-baratzeei aplikatuko litzaieke, 10 ha-tik gorako okupazio-azalerako energia husteko eta saltzeko sarera konektatuta. |
| Biomasa | Energia husteko eta saltzeko sarera konektatuta dauden energia elektrikoaren eskala handiko ekoizpeneko zentrali aplikatuko litzaieke. |
| Geotermia | Energia husteko eta saltzeko sarera konektatuta dauden energia elektrikoaren eskala handiko ekoizpeneko zentrali aplikatuko litzaieke. |
| Ozeanikoa | Kostaldean kokatutako olatuetatik (undimotrizia) abiatuta energia elektrikoa eskala handian ekoizteko zentrali aplikatuko litzaieke, autonomia-erkidegoaren eskumeneko eremuetan (portuak, ...). |
| Minihidraulikoa | Energia husteko eta saltzeko sarera konektatuta dauden Euskadiko ibilguetako instalazio berriei aplikatuko litzaieke. Ez da aplikatzen egun baimenduta dauden instalazioak birgaitzeko. |

1. taula. Energia berriztagarri moten definizioak.

- Zonakatze hori ez zaie aplikatzen autohornikuntzako energia berriztagarrien instalazioei edo energia berriztagarriak dituzten bero- eta hotz-sareei (*District heating and cooling*), azken horien ingurunearen gaineko eragina ez baita garrantzitsua izango. Irizpide horrek ez du eragozten instalazio horiek izan dezaketen energia-soberakina saltzea.
- Proposatutako zonakatzeari buruz ENERGIA BERRIZTAGARREN LPSean emandako informazioa eta kartografia ez dira argazki finko denboran mugiezinak; izan ere, ingurumenaren eta lurralde-antolamenduaren ikuspegitik, errealitatea etengabe aldatzen ari da, eta legeria oso dinamikoa da. Beraz, unean-unean indarrean dauden arauetan hitzez hitz ezarritakoa bete beharko da beti.



24. ARTIKULUA- Baztertze-eremuak

- "*Baztertze-eremuak*" Energia Berriztagarrien LPSaren "Memoria" izeneko I. Dokumentuan eta "Planoak. A taldea. Antolamendu-planoak" izenekoan halakotzat mugatutako lurraldeko eremuak edo esparruak dira.
- "*Baztertze-eremuetan*" eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioak ezartzea berariaz debekatutako erabilera edo jarduera izango da energia-mota bakoitzerako

25. ARTIKULUA- Eremu optimo garbiak

- "Eremu optimo garbiak" II. Dokumentuan, "Planoak. A taldea. Antolamendu-planoak" delakoan halakotzat mugatutakoak dira. Eremu optimo garbi horiek eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioei aplikatzen zaizkie, eta bazterketa-eremuetatik kanpo kokatutako guneei dagozkie, baldintzatzailerik gabe, eta, gainera, baliabide optimoa duten eremuen azterketa egin da, baliabidearen kokapenaren mende dauden energia berriztagarrietarako. Horrela, energia eolikoarentzat, eguzki-energia fotovoltaikoarentzat eta energia ozeanikoarentzat guneko eremu optimo garbiak definitzen dira.
- Eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioak "eremu optimo garbietan" ezartzea zuzenean aplikatzekoa den erabilera edo jarduera onargarritzat jotzen da Lurraldearen Plan Sektorial hau indarrean jartzen denetik, eta ez da beharrezkoa inolako hirigintza-plangintzaren bidez garatzea, lurzorua sailkapena eta kalifikazioa edozein izanik ere; aplikagarria den araudi sektorialaren arabera beharrezkoak diren gainerako baimenak eta lizentziak alde batera utzi gabe.
- Eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarria hartu eta eraldatzeko erabilera edo jardueraren onargarritasuna automatikoki sartuko da udal-plangintzan Lurralde Plan Sektoriala indarrean jartzen denean; hala ere, eragindako udalek aukera izango dute beren plangintzan sartze hori dokumentatzeko behar diren prozedurak hasteko.
- Aprobetxamendu eolikoari lotutako eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioen kasuan, "Eremu optimo garbiak" bi mailatan banatuta daude (1. maila eta 2. maila), baliabide eolikoaren arabera. 1. mailako eremuak bat etorriko liriteke urtean 3.350 ordu baliokide garbi baino gehiago dituzten esparruekin, eta 2. mailako eremuak urtean 2.650 eta 3.350 ordu baliokide garbi arteko baliabide eolikoaren duten zonekin.

Honela, aprobetxamendu eolikoari lotutako instalazioen kasuan, "1. mailako eremu optimo garbiak" eta "2. mailako eremu optimo garbiak" "Antolamendu-planoetan" zehazten dira. Eremu edo lur-zerrenda horiek parke eolikoko aerosorgailuak eta beharrezko ekipamendu eta zerbitzuak hartzeko bezain zabalak dira, bai eta parke eolikoaren benetan konfiguratzeko beharrezkoak diren aukerak definitu, egokitu eta garatu ahal izateko ere.

Jarduera horiek, aerosorgailuen kokapen zehatzarekin eta parke eolikoaren osatzen duten gainerako elementuekin batera, instalazio horiek gauzatzeko proiektuetan gauzatu dira. Energia arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak izapidetu eta ebatziko du proiektu horiek baimentzea, sektore elektrikoaren araudiari jarraiki.

Eusko Jaurlaritzan energiaren arloko eskumena duen sailaren ebazpenean, dagokion haize-parkea instalatzeko eta gauzatzeko proiektua onartzeko, haren mugaketa zehatza finkatuko da. Nolanahi ere, ebazpenak antolamendu-planoetan mugatutako eremuak berriz doitu ahal izango ditu, gehienez ere azaleraren % 10eraino. Parke eolikoaren egiten denean, parke horri benetan lotuta geratu ez diren lursailek behar bezala funtzionatzearekin bateragarria den edozein erabilera izan dezakete

Haize-aprobetxamenduari lotutako eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioak "*1. mailako eremu optimo garbiak*" eta "*2. mailako eremu optimo garbiak*" izenekoetan ezartzea, erabilera edo jarduera onargarritzat jotzen da, Lurralde Plan Sektorial hau indarrean sartzen denetik zuzenean aplikatzekoa, eta ez da beharrezkoa izango inolako hirigintza-plangintzaren bidez garatzea, lurzorua sailkapena eta kalifikazioa edozein izanik ere; hala ere, aplikagarri den sektore-araudiaren arabera beharrezkoak diren gainerako baimenak, lizentziak eta onarpenak izango dira.



26. ARTIKULUA – Lurraldearen gainerakoa

Euskadiko eremu optimo garbietan eta bazterketa-eremuetan sartzen ez diren gainerako lurraldeetan, eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioak ezartzea jarduera edo erabilera onargarria izan daiteke udaleko hirigintza-plangintzak eragozten ez duen eremuetan.

27. ARTIKULUA - Erabilpenen erregimena

- Erabilpenen erregimen honek eskala handiko produkzioko energia berriztagarria ekoizteko instalazioa gauzatzeko beharrezko instalazioek okupatutako lur-zerrendari aplikatuko zaio, eta, bereziki, haize-aprobetxamenduaren kasuan, aerosorgailuen besoek, luzeran, neurtzen duten halako bi izango da lur-zerrenda; bestalde, lur zerrenda horren ardatza izango da aerosorgailuen lerroakadura.
- **Erabilera onargarriak** izango dira:
 - Eremu optimo garbietan:
 - ~ Aplikatu beharreko sektore-araudiaren arabera beharrezkoak diren gainerako baimenak, lizentziak eta onarpenak alde batera utzi gabe, aprobetxamendu berriztagarria erabilera edo jarduera onargarritzat jotzen da, erabilerak zonakatzeko matrizearen arabera. Erabilera edo jarduera hori zuzenean aplikatu behar da Lurralde Plan Sektorial hau indarrean sartzen denetik, eta ez da beharrezkoa inolako hirigintza-plangintzaren bidez garatzea, lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa edozein izanik ere, eta Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroen ingurune fisikoaren gidalerroan aurreikusitako antolamenduaren kategoria guztien barruan.
 - ~ Erabileraren onargarritasuna automatikoki txertatuko da udal-plangintzan Lurralde Plan Sektoriala indarrean jartzen denean; hala ere, eragindako udalek aukera izango dute erabilera hori beren plangintzan dokumentatzeko behar diren prozedurak hasteko.
- **Baimentzeko moduko** erabilerak izango dira:
 - Eremu optimo garbietan:
 - ~ Eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriak hartutako lur zerrendatik igaro behar duten ganaduarentzat alanbrezko itxiturak jartzea edo zaintzea, inguruko abeltzaintza ustiapena egoki burutzeko. Kasu horretan, langak edo beste edozein sistema jarriko dira parke barruko bidetik igarobidea ez mozteko.
 - ~ Lur zerrendatik pasa behar duten lurpeko urentzat pasabideak egitea edo zaintzea. Pasabide horiek lurpeko kanalizazio elektrikoek zorrak errespetatuz egingo dira.
 - ~ Uraskak egitea edo zaintzea, ganaduak ura edan dezan.
 - ~ Ereitea, zuhaitzak landatzea eta tamaina txikiko zuhaixkak landatzea, baldin eta horiek ez badute airearen zirkulazioa aldatzen eta, beraz, ez badiete kalterik egiten energia-ekoizpeneko elementuen funtzionamenduari, hala nola aerosorgailuen edo jarraitzaile fotovoltaioken funtzionamenduari.
 - ~ Parke barruko bideak erabiltzea, zerbitzuko autoek pasatzeko, eta baita traktoreak eta nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako autoak pasatzeko ere, euren lantokietara joan daitezen, salbu eta ustiapen-planean berariaz debekatuta badago.
 - Lurraldearen gainerakoa:
 - ~ Euskadiko eremu optimo garbietan eta bazterketa-eremuetan sartzen ez diren gainerako lurraldeetan, eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioak ezartzea jarduera edo erabilera onargarria izan daiteke udaleko hirigintza-plangintzak eragozten ez duen eremuetan eta energia berriztagarri mota bakoitzerako erabilerak zonakatzeko matrizean eta aplikatzekoa den araudi sektorialean ezarritako baldintzak betetzen direnean.



- **Debekatzeko moduko** erabilerak izango dira:
 - Eremu optimo garbietan:
 - ~ Eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriak sortzeko prozedura normalarekin eta ekoizpeneko instalazioak osatzen duten instalazioen ezaugarriekin bateragarriak ez direnak, eta baita instalazio mota hauek dituzten segurtasun baldintzak errespetatzen ez dituztenak ere.
 - ~ Ezin izango da instalazio energetiko berriztagarrien ekoizpen gaitasuna murriztuko duten jarduerarik burutu, ezta etorkizunean parke instalazioa zabaltzea mugatuko duten jarduerarik ere.
 - ~ Hain zuzen, aipatutako lur zerrenda haren esparruan debekatuta egongo da:
 - * Larreak, uztondoak edo beste edozein landaretza erretzea.
 - * Hegazti faunarentzat simaurtegiak edo jantoki osagarriak jartzea, gertuen dagoen aerosorgailutik hasi eta 3 km baino gutxiagora.
 - * Parke barruko bideetatik motordun autoetan ibiltzea, baimenduta izan ezik.
 - * Haizearen zirkulazioari, uren mugimenduari edo intsolazio baldintzei eragozten dieten oztopoak jartzea.
 - * Husteko azpiegituren lurpeko kanalizazioei eragin diezaiekeen landaketak egitea.
 - * Jarduera zinegetikoak burutzea.
 - Baztertze-eremuetan:
 - ~ Eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioen ezarpena berariaz debekatutako erabilera edo jarduera izango da, energia berriztagarri mota bakoitzerako erabileren zonakatze-matrizearen arabera.

28. ARTIKULUA- Lehendik dauden eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioak

Energia Berriztagarrien LPS hau indarrean jarri aurretik eraikitako eta ustiatzen ari diren eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioak guna optimo garbiak izango dira, eta instalazio bakoitzerako emandako administrazio-baimenetik eratorritako araubidea aplikatuko zaie, eta, hala badagokio, dagokion ingurumen-inpaktuaren adierazpenetik eratorritakoa. Horietan aurreikusi ez den orori dagokionez, Energia Berriztagarrien LPS honetako zehaztapenak aplikatuko dira.



6. XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen Xedapen Gehigarria

- Lurralde Plan sektorial honek, *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legearen 22.* artikuluan ezarritakoaren arabera, bere horretan lotuko ditu indarrean dagoen eta aplikatu behar den hirigintza-legeriak ezarritako udal-plangintzako tresnak.
- Ondorioz, *Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 18ko 2/2006 Legearen 52.* artikuluan xedatutakoaren arabera, udal-plangintza Lurralde Plan sektorial honek lotzen du, eta plan horren arau-edukira egokitu beharko da. Plan hori, gainerako edukian, erreferentziatzeko jarraibide gisa erabiliko da, haren zehaztapenak interpretatzeko eta aplikatzeko.

Xedapen Indargabetzailea

LPSaren xedapen hauek eguneratu eta ordeztu egiten dituzte *maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuaren* bidez onartutako Euskadiko Energia Eolikoaren I. Lurralde Plan sektorialaren informazio- eta arau-agirietan jasotako xedapen guztiak.

Lehenengo Xedapen Iragankorra

- Araudi honetako 7. artikuluan jasotako hirigintza-antolamenduko tresnak urtebeteko epean egokitu beharko dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hasita.
- Lurralde Plan Sektorial hau indarrean sartzean hasierako onespenerik lortu gabe izapidetzen ari diren udal-plan orokorrek eta -arau subsidiarioek beren zehaztapenak sartu beharko dituzte plan sektorial honen preskripzioetan, dagozkien berrikuspen- eta/edo aldaketa-prozeduren arabera.
- Plan eta arau horien berrikuspenari edo aldaketari hasierako onespenera eman bazaio, udalek izapidetzen jarraitu ahal izango dute, baina beti egokitu ahal izango dituzte, eta behin betiko onartu, dagozkien aurreikuspenak erantsita.